

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

2019ko ekitaldian kreditu-transferentziaren bitartez aurrekontu-aldaketak egiteko dossier baten behin-behineko onespena

2019ko azaroaren 15ean egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zien Gasteizko Udaltzariak 2019ko ekitaldirako luzatutako aurrekontuetan kreditu-aldaketak egiteko dossier honi:

– 30.000,00 euroko kreditu-transferentzia egitea 23.20.01 3411 481.11 aurrekontu-aplikaziora (Hitzarmena Arabako Pilota Federazioarekin), diru-laguntza izendun baterako.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Arabako Lurralde Historikoko Toki erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hamabost egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udaltzari zuzenduta.

Behin betiko onartutzat joko dira dossier horiek baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 20an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE